



2010ko Nazioarteko Zinemaldiaren hizkuntza erabileraren neurketa



Donostiako Euskaltzaleen Elkartea

Katalina Eleizegi kalea, 36-behea. 20009 Donostia
Tel: 943467181- Fax: 943446532- e-mail: bagera@bagera.net

Aurkibidea

1. SARRERA.....	3
2. METODOLOGIA	3
3. NEURKETAREN EMAITZAK.....	4
3.1. MATERIAL IDATZIA.....	4
3.1.1. Argitalpenak.....	4
3.1.1.1. Filmez filmeko gida.....	4
3.1.1.2. Programazio aurrerapenaren txostena.....	4
3.1.1.3. Nazioarteko Zinemaldiaren informazio liburua	4
3.1.2. Zinemaldiko kartelak.....	5
3.1.3. "Zinemaldia" egunkari ofiziala	5
3.1.4. Iragarkiak.....	6
3.1.5. Web gunea	6
3.1.6. Abonu, gonbidapen, sarrera eta akreditatuentzako materiala	7
3.1.8. Prentsa harremanak	7
3.2. AHOZKO ERABILERA	8
3.2.1. Ekitaldi Nagusiak	8
3.2.1.1. Irekiera eta amaiera ekitaldiak.....	8
3.2.1.2. Donostia saria banaketa ekitaldia.....	8
3.2.1.3. Beste sari batzuen banaketa ekitaldiak.....	9
3.2.2. Prentsaurrekoak	8
3.2.3. Aurkezpenak eta mahai-inguruak	9
3.2.4. Jendaurreko zerbitzuak	9
3.3. FILMAK	9
4. ONDORIOAK	10
4.1. FILMAK	10
4.2. IDATZIZKO MATERIALA	10
4.2.1. Zinemaldiaren argitalpenak eta beste materiala.....	10
4.2.2. "Zinemaldia" aldizkaria.....	10
4.2.3. Web gunea	11
4.2.4. Prentsa oharrek eta bestelakoak	11
4.2.5. Zinemaldiak argitaratu ez duen materiala	11
4.3. IRAGARKIAK	11
4.4. AHOZKO ERABILERA	12
5. PROPOSAMENAK	13
ERANSKINAK.....	15

1. SARRERA

Donostian urtero antolatu ohi den Zinemaldian, aurtengo edizioan ere, hizkuntz erabilera neurtzea erabaki du BAGERA Donostiako Euskaltzaleen Elkarteak, aurreko urteetan egindako azterketari jarraipena emateko asmoz. Nazioarteko Zinemaldiak, besteak beste, Eusko Jaurlaritzaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Donostiako Udalaren dirulaguntza jasotzen du eta barneratua izan behar dugu euskara hizkuntza ofiziala dela EAEn, eta Donostiako Udal Ordenantzek euskarak, gutxienez, gazteleraren trataera berdina izan behar duela diotela.

Urteroko behaketa honekin, euskarari eskaini zaion trataerak aldaketarik jasan duen eta, orokorrean, eskaini zaion presentzia zer nolakoa izan den jakitera eman nahi dugu. Emaizak ikusita, honako azterketa hau baliagarria zaigu nolako proposamenak egin daitezkeen eta zein planteamendurekin, jakin ahal izateko.

2. METODOLOGIA

Hamazazpigarren urtez egin du BAGERA Elkarteak Zinemaldiaren neurketa eta beraz, aurreko hamasei urteetako datuak aurrean izan ditugu neurketa egiterakoan. Zinemaldiak bere gain hartzen dituen momentu guztiak neurtzen saiatu gara. Filmen aurkezpenak eta mahai-inguruak, euskaraz azpidatzitako edota bikoiztutako film kopurua, programazio aurrerapenaren txostena, filmez filmeko gida, "Zinemaldia" egunkari ofiziala, kartelak, e.a. neurtu ditugu.

Behaketa aurrera eramateko orduan, bagerakideen laguntza ezinbestekoa izan da, halere, elkartetik kanpoko kolaboratzaileak ere izan ditugu. 15 lagun baino gehiagok jasotako datuak bildu ditugu behaketa aurrera eramateko orduan.

Neurketa egiterakoan, 3 multzo desberdindu ditugu:

a) Material idatzia: Material idatzi ugari izaten da Nazioarteko Zinemaldian. Antolakuntzaren argitalpenak (Filmez filmeko gida, programazioaren aurrerapen txostena, ...), kartelak, "Zinemaldia" egunkaria, web gunea, errotulazioak, e.a. izaten ditugu aztergai. Baita, Donostiako kaleetako iragarki panelak, e.a.

b) Ahozko erabilera: Ekitaldi Nagusiak, prentsaurrekoak, film emanaldietako aurkezpen eta mahai-inguruak eta jendaurreko zerbitzuak aztertzen ditugu atal honetan. Zein hizkuntza erabiltzen den eta bakoitza zein neurritan hartzen dugu kontuan.

c) Filmak: Filmen azterketa sinplea da. Zinemaldiak irauten duen egunetan zenbat pelikula eta zenbat emanaldi proiektatuko diren kontuan hartu eta horietatik euskarara bikoiztutakoak edota azpititulua dutenak zenbat izan diren azalduko dugu.

3. NEURKETAREN EMAITZAK

Hainbat atal neurtu ondoren, arloz arlo, neurketaren emaitzak emango ditugu ezagutzera. Azken partean ondorioak eta aurrera begirako proposamenak azalduko ditugu.

Ohar moduan honakoa argitu nahi genuke: txostenean zehar bi eletan adierazten denean, euskara eta gaztelera erabiltzen direla esan nahi da. Eta hiru eletan esaten denean, aldiz, euskara, gaztelera eta ingelesa erabiltzen direla esan nahi da.

3.1. MATERIAL IDATZIA

3.1.1. Argitalpenak

3.1.1.1. Filmez filmeko gida

70 orrialdetako gida aztertu eta gero, azterketak ondorengo emaitza eman du:

Liburuxkan testu guztiak hiru eletan daude: euskaraz, gaztelera eta ingelesez, aipatutako ordenan eta, kasu guztietan, bata bestearen itzulpenak dira, aipatu beharra daukagu gaztelera azalpena letra lodiz idatzita agertzen denez, gehiago ikusten dela. Argitalpen datuak eta beste zenbait ohar ere hiru eletan daude. Azalean aurtengo edizioko kartela bi eletan azaltzen da. Kontrazalean datorren iragarkia (Kutxarena) gaztelera dago.

Filmez filmeko gidarekin batera, ongi etorri gida, 2 eskuorri eta euskarazko hiztegi txikia banatu dituzte:

- **Ongi etorri gida** hiru eletan idatzia dago, lehenengo euskaraz (6. orrialdetik 16.era), gaztelera ondoren (18-30) eta ingelesez jarraian (32-42). Hiriko planoan markatuta dauden puntuen izenak ere bi eletan badaude (gaztelera lehenengo euskaraz ondoren) mapan kaleen izenak gaztelera bakarrik irakur daitezke. Ondoren “informazio praktikoa” atalean (bidai agentziak, lojamenduak, kontsulatuak, museoak...) helbide guztiak gaztelera bakarrik azaltzen dira. Iragarkiei dagokienez 12 dira orotara, 7 gaztelera hutsez, 2 bi eletan, 2 hiru hizkuntzatan eta 1 ingelesez.
- Sarrerak eskuratzeko azalpenak ematen dituen esku orria bi eletan dago, bata bestearen itzulpen gisa.
- Poltsiko egitarauan, 2 sail gaztelera bakarrik azaltzen dira (*sección oficial* eta *Velódromo*), lekuen izenak gaztelera hutsean daude (*Principal*, *Príncipe*, *Velódromo*, *Sala Kutxa*) eta informazioa hiru eletan.
- Donostia Turismoa eta Euskararen Udal Patronatuak udarako ateratako Euskarazko Hiztegi Txikia ere banatu dute. Hiztegia zortzi hizkuntzatan dago.

3.1.1.2. Programazio aurrerapenaren txostena

Sarreran zeuden bi langileak txostena euskaraz edo gaztelera nahi zenuen galdetzen zuten eta horren arabera bata zein bestea har zitekeen. Zinemaldiko karpeta batekin batera banatu zuten. Karpetan, guztia bi eletan dago.

3.1.1.3. Nazioarteko Zinemaldiaren informazio liburua

Liburuak 288 orrialde ditu. Azalean, Zinemaldiaren kartel ofiziala dago eta kontrazalean film baten iragarkia dago gaztelera. Barruan guztia hiru eletan dago (lehenengo euskaraz, ondoren ingelesez eta jarraian gaztelera).

Liburuan 17 iragarki daude, orrialde osokoak. Horietatik bi iragarkitan soilik ikus daiteke euskararen arrastoa. Beste 15 iragarkiak gaztelera hutsez dauden edo gaztelera nagusi duten iragarkiak dira.

3.1.2. Zinemaldiko kartelak

Aurten zinemaldiak 5 kartel izan ditu: nagusia, Zabaltegi sailekoa, "Horizontes Latinos" sailekoa, atzera begirako klasikoak (Don Siegel) eta .DOC. Guztietan bi eletan agertzen da data eta sail bakoitzaren izena hizkuntza bakarrean agertzen da, horrela, Zabaltegi saila euskaraz dagoen arren, Horizontes Latinos eta .DOC "Nuevos caminos de la no ficción" gaztelera azaltzen dira.

3.1.3. "Zinemaldia" egunkari ofiziala

Zinemaldian egunero kaleratzen den egunkaria aztertu dugu. Lehenik eta behin aipatu nahi dugu, egunkariaren izena aldatu egin dela, orain arte "Diario del Festival" zena, aurten "Zinemaldia" egunkaria da. Hau oso positibotzat jotzen dugu eta aurrerapauso handia da.

Aurten ere, beste urteetan bezala, Zinemaldiko antolatzaileekin eta Euskararen Udal Patronatuko teknikariekin ezarritako irizpideak erabili ditugu azterketa honetarako, horrela egunkaria atalka banatu dugu eta horren arabera, atera ditugu emaitzak eta ondorioak. "Zinemaldia" egunkarian agertzen diren iragarkien azterketa txostenaren 3.1.5 atalean azalduko dugu.

Batetik, zintiloak, argazkien oinak, programazio atala, filmen sinopsiak, agenda eta staff atala aztertu ditugu. Guztiak kontuan hartuta gaztelera nagusitzen da. Zintilo nagusiak bi eletan edo hiru eletan izan dira. Film sinopsiak beti hiru eletan izan dira eta gainontzeko ataletan gaztelera da da nagusi; besteak beste argazki oinak, programazio atala, agenda, staff-a ...

Bestetik, egunkariaren muina aztertu dugu, hau da, artikuluen bi sailkapen egin ditugu: batetik zabaleraren arabera, nagusi eta laburren artean bereizi dugu eta bestetik sailaren arabera sailkatu ditugu.

Orokorrean hartuta, hau da, sail guztietako artikulua nagusiak eta laburrak batuta, gaztelera nagusi dela ikus daiteke (%61,88), ingelesa ondoren (%20,69) eta azkenik euskara (%17,43).

Artikulu nagusietan, gaztelera nabarmenki nagusitzen da (%75), ondoren euskara (%20,31) dago eta maila apalagoan ingelesa (%4,69). Iazko datuekin alderatuta gaztelera idatzitako artikuluek behera egin duten heinean (%78,95etik %75era), euskarazkoak igo egin dira (%15,04tik %20,31era) eta ingelesezkoak gutxitu egin dira. Artikulu laburretan, berriz, iazko datuekin alderatuta ehunekoak mantendu direla esan dezakegu, ingelesa eta gaztelera izan dira nagusi (%44,63 eta %40,68), ondoren euskara (%14,69).

Sail bakoitzari eskainitako artikulua zein hizkuntzatan azaldu diren aztertuz gero, euskarari egindako tartearen emaitza oso desberdina da sailaren arabera:

- Inaugurazio egunari eskainitako artikulua nagusien erdiak gaztelera idatzi dira (% 50), gainerakoak euskaraz eta ingelesez (% 25 eta %25). Sail honetako artikulua labur gehienak (%66,67) gaztelera izan dira, gainerakoak ingelesez.
- Sail ofizialean gaztelera idatzi dira artikulua nagusi gehienak (%62,50), beste %37,50a euskaraz idatzi dira. Artikulu laburretan, berriz, ingelesezkoak nagusi dira nabarmen (%69,57), gainerakoak gaztelera (%17,39) eta euskaraz (%13,04) dira. Aipatu beharra dugu, aurten iazko datuekin alderatuta euskarazko artikulua laburrak nabarmen igo direla (%4,76tik %13,04ra).
- Zabaltegin artikulua nagusiei dagokionez, gaztelera idatzitakoak gailendu dira (%80,95) eta euskaraz idatzitakoak %19,05 izan dira (iaz, berriz, %24 izan ziren). Artikulu laburretan aldiz, ehunekoak parekatu egin dira: gaztelera gehienak (%36,54) ondoren ingelesezkoak (%32,69)

eta azkenik euskarazkoak (%30,77). Sail honetan, artikulua nagusietan, euskaraz idatzitakoak urte urte behera doaz nabarmen.

- *Horizontes Latinos* sailari buruzko artikuluetan ez zaio lekuri eskaini euskarari, artikulua nagusietan euskaraz idatzitako artikulurik ez da egon, guztiak gaztelera idatzita daude eta laburretan %85,71 ingelesez izan dira eta gainontzekoak, gaztelera-koak (%14,29) dira.

- Belodromoan emandako filmei buruzko artikulua nagusietan % 66,67 gaztelera izan dira eta %33,33a euskaraz. Artikulu laburretan aldiz, artikulua guztiak ingelesez dira.

- *Don Siegel* atalean, artikulua nagusi guztiak gaztelera izan dira (% 100), eta artikulua laburrik ez da egon.

- *.Doc* atalean, artikulua nagusietan gaztelera gailendu da (%84,62). Artikulu laburretan euskararen presentziarik ez da egon, %90,91 gaztelera eta %9,09 ingelesez izan dira.

- *The industry club* atalari dagozkionetan euskaraz ez du lekuri izan. Gaztelera eta ingelesez izan dira artikulua guztiak. Artikulu nagusietan gaztelera eta ingeleseko portzentaje berean erabili da eta laburretan, ingeleseko izan da nagusi.

- *Donostia Sariak* ataleko artikulua nagusietan, gaztelera izan dira gehienak. Laburretan, berriz, ingeleseko da nagusi (%50), ondoren gaztelera (%33,33) eta azkenik euskaraz idatzitakoak (%16,67).

- Epaimahaiari buruzko artikuluetan ere gaztelera izan da nagusi, batez ere nagusietan (%75). Laburretan euskarazko artikulurik ez da izan, %50 gaztelera eta neurri berean ingelesez izan dira.

- Berriak eta sarien artikuluei dagokienez, gaztelera izan da artikulua nagusietan erabili den hizkuntza nagusia (%80). Artikulu laburretan ere %52,94 gaztelera izan da eta maila berean euskaraz eta ingelesez idatzitakoak (%23,53).

- *Zinemira* atalari buruz gutxi izan dira idatzitako artikulua, gehiengoak euskaraz izan dira (%71,43) eta gainerakoak gaztelera (%28,57). Artikulu laburren kasuan, ingeleseko izan da nagusi (%66,67) eta %33,33a gaztelera izan dira.

- 1. eranskinean, idatziz azaldutako guztia zenbakitan erakusten duen taula aurkezten dugu (datuak ehunekotan daude).
- 2. eranskinean, taulan azaldutako datuak ikusteko hainbat grafiko erantsi ditugu. Eta iazko datuen konparaketa.
- 3. eranskinean, "Zinemaldia" egunkarian argitaratutako iragarkiak. Eta iazkoarekin konparaketa.

3.1.4. Iragarkiak

"Zinemaldia" egunkari ofizialean argitaratu diren iragarkien azterketa egin dugu. Gaztelera soilik erabiltzen duten iragarkiak nagusi dira (%75,38). Jarraian bi eletan (%10), euskara hutsezkoak (%9,23), hirueletan egindakoak (%3,85) eta hizkuntza gabekoak (%1,54) gutxiengoak. Iazko datuekin konparaketa eginez gero, gaztelera-koak igo egin dira (87 iragarkitik 98ra), euskarazkoak (12) mantendu diren arren, bi eletan egindakoak berriz, nabarmen jaitsi dira (24 iragarkitik 13ra).

Euskara hutsez jarri duten iragarleak bi izan dira, bi eletan ipini dituztenen parera. Azkenik, hiru eletan iragarle bakarra egon da.

3.1.5. Web gunea

Web gunean lehenik hizkuntza aukeratzeko pantaila agertzen da, gaztelera, euskara eta ingeleseko aukeratzeko eskatzen zaigu. Behin aukeratu ondoren hizkuntza guztietan aukera berdina eskaintzen ditu. Web orriak duen hutsune nabarmenena bideoetan dago, prentsurrekoak, elkarrizketa, filmak... gaztelera daude edota gaztelera itzulita edo gaztelera-ko azpitituluekin.

Bestetik:

- Sari eta epaimahaiak, zuzendari berriak, “La vida útil” eta “Los colores de la montaña” filmetan klikatzerakoan ingeleseko bertsiora bidaltzen zaitu.
- Industriaren Zinema Eraikitzen sarien oinarriak gazteleraz bakarrik azaltzen dira.
- The Industry Club atalean, “News Flash” izenean klikatzerakoan gazteleraz bakarrik irakur daiteke dokumentua.
- Ikus entzunezkoen foro digitala eta Zabaltegi topaketen elkarriketak gazteleraz daude.
- Horizontes-eko gosarien bideoek ez dute ahotsik.

Azkenik, hiriari buruzko informazioaren atalean, Donostiako mapan agertzen diren izen gehienak euskaraz ikus ditzakegu baina ondoren intereseko puntuen helbideak gazteleraz azaltzen dira. Atal berean, Donostia kalez kale klikatzerakoan, Udalaren web gunean sartzeko zara, eta iaz ez bezala, aurten donostia.org euskarako bertsiora eramaten zaitu.

3.1.6. Abonu, gonbidapen, sarrera eta akreditatuentzako materiala

Beste urteetan bezala, aurtengoan ere bi eletan ageri da informazio guztia bai abonuetan, bai gonbidapenetan eta baita sarreretan ere. Aurkezpen ofizialetako gonbidapenak ere bi eletan daude.

Akreditatuentzat banatutako materialean zeuden txartelak hiru eletan zeuden (argitalpenak erosteko txartela, zinemaldiko poltsarengatik trukatzeko txartela eta akreditazioak baimentzen dizunaren oharrak azaltzen dituen txartela).

3.1.7. Prentsa harremanak

Zinemaldiko antolakuntzatik posta elektronikoz jaso ditugun mezu guztiak euskaraz edo bi eletan izan dira, guztietan euskarari lehentasuna emanez.

3.2. AHOZKO ERABILERA

3.2.1. Ekitaldi Nagusiak

3.2.1.1. Inaugurazio eta amaiera ekitaldiak

Inaugurazio eta amaierako ekitaldiak internetez jarraitu ditugu www.sansebastianfestival.com-etik.

Inaugurazio ekitaldian Edurne Ormazabal eta Eduardo Noriega aritu ziren aurkezle lanetan. Ekitaldian 13 bideo izan ziren ikusgai (sailak gaztelera azaltzen ziren, bideoen off ahotsa euskaraz entzun zitekeen eta azpigituluak gaztelera). Ekitaldian zehar, bi aurkezleek hitza txandaka hartu zuten eta aurkezpenen interbentzio gehienak gaztelera izan zen (guztira 15 minutu eta 17 segundu). Euskaraz hamar interbentzio labur besterik ez ziren egon (guztira minutu bat eta 6 segundu). Hainbat gonbidatuk ere hitza hartu zuten, kasu hauetan beraien jatorrizko hizkuntzan hitz egiten zuten eta itzulpenik ez zen egin.

Sari banaketa eta amaiera ekitaldian, Edurne Ormazabal eta Ana Alvarez izan ziren aurkezleak. Euskararen erabilerari dagokionez, aurrekoaren oso antzekoa izan zen. Euskararen presentzia hainbat partehartzetan izan zen, baina beti oso laburrak, askotan agurtzeko bakarrik eta zenbait sari banaketaren izenak aipatzeko orduan. (Gaztelera egin ziren interbentzioek 20 minutu eta 23 segundoko iraupena izan zuten, eskarazkoek, berriz, 2 minutu eta 47 segundoko iraupena izan zuten). Beste hizkuntzetan izandako interbentzioak gaztelera itzuli zituzten. Iaz bezala, erabili ziren bideo guztiak (gehienak filmen laburpenak) jatorrizko hizkuntzan gaztelera azpigituluarekin eskaini ziren. Bideoen errotulazio guztiak gaztelera hutsez zeuden (premio del público, mejor guión, Concha de plata al mejor actor, premios nuevos directores...).

3.2.1.2. Donostia Saria banaketa ekitaldia

Aurten banatutako Donostia Sarian euskararen erabilera oso urria izan zen, aurreko urtean bezala. Edurne Ormazabalek egin zuen ekitaldiaren aurkezpena. Euskaraz, hasierako eta amaierako agurrak, eta erdialdean interbentzio bakarrean (9 segundo) besterik ez zen egin. Ekitaldian zehar ipinitako bideoak jatorrizko bertsiotan entzun ziren, hau da, ingelesez, eta azpigituluak gaztelera irakur zitezkeen. Sariduna aurkezteko hitza hartu zuenak gaztelera egin zuen eta ondoren saridunak (Julia Robertsek), ingelesez hitz egin zuen, itzulpena gaztelera soilik egin zuten.

3.2.1.3. Beste sari batzuen banaketa ekitaldiak

Euskal Zinema sari banaketan bi aurkezle izan ziren Elena Irureta eta Koldo Martinez. Aurkezleek euskara eta gaztelera tartekatu zuten oreka mantenduz. Baina saritutakoen kasuan gaztelera izan zen nagusi (Imanol Uribe eta Alex Angulo gaztelera aritu ziren).

3.2.2. Prentsaurrekoak

Azken urteetan bezala, moderatzaileak gehienetan, agurtzeko lehenik euskara erabiltzen du, ondoren gaztelera eta batzuetan ingelesa, baina beti gaztelera nagusitzen da. Bestalde, prentsaurrekoetan itzulpen zerbitzua dago eta euskarazko itzulpena 4. kanalean entzun zitekeen.

Bestalde, internetetik prentsaurrekoak jarraitzeko aukera ere izan da. Web gunean sartzean euskarazko bertsiok aukeratu dugu. Hizlariak gaztelera edo beste hizkuntza batean hitz egin dutenean itzulpena euskarara egin da aurtengoan kasu gehienetan.

3.2.3. Aurkezpenak eta mahai-inguruak

Behatzaileek jasotakoan ikusten denez, aurkezpena izan duten emanaldi gehienetan sarrera bi eletan egin da, hala ere, kasu batzuetan pelikularen zuzendariak gazteleraz eman ditu azalpenak eta beste hizkuntza batean izan denean itzulpena gaztelerara egin da bakarrik. Beste batzuetan, berriz, filmaren berri eman dute bi eletan edo hirueletan (hau da, izenburua, zuzendaria... besterik gabe). Zinema ikasleen nazioarteko topaketetan 3 film labur eskaini zituzten, eta guztien aurretik, aurkezleak aurkezpena egin zuen: Lehenengoan gehiena ingelesez izan zen, eta beste bi film laburren aurkezpenak gazteleraz izan ziren.

Mahai-inguruei dagokienez, ongi etorrian eta galderen tarte irekitzean euskara erabili arren, dinamizatzailerak jarraian gazteleraz egiten zuen kasu gehienetan, galderak euskaraz izan direnean euskaraz erantzun dituzte eta gaztelerara itzuli. *Sagarraren denboran* eta *Mugaldekoak* filmen mahai ingurua euskararen presentzia nabaria izan da. Hala ere aipatu beharra dugu, *Mugaldekoak* filmaren kasuan, galdera eta erantzun guztiak gaztelerara itzuli zirenez astunegia egin zela. Zabaltegi topaketak, Horizontes Latinoseko gosariak eta foro digitala gaztelera hutsez izan ziren.

3.2.4. Jendaurreko zerbitzuak

Zinemaldiko bulegora bertaratu edota telefonoz hitz egin dugunean, euskaraz egin ahal izan dugu. Kursaal gunean; informazio leihatiletan, aretoen sarreretan, sarreren salmentako edota akreditatuentzako leihotetan, euskaraz jaso dugu zerbitzua. *The Industry Club* gunean berriz, harreraren zegoen langileak ez zekien euskaraz. Antzoki Zaharreko sarrerako langileek euskaraz egiten zuten, aretozainak aldiz ez zekien euskaraz.

3.3. FILMAK

Aurtengo ekitaldian, euskaraz azpigitulu elektronikoa zuten filmak 18 izan dira, 7 euskarazko bertsioan eta euskarara bikoiztutakoak aurten ez dira egon. Euskaraz azpigitulua zuten 37 emanaldi izan dira, eta euskarazko pelikulenak 18 emanaldi izan dira.

Guztira, 191 film inguru egon dira ikusgai, beraz, euskaraz azpigitulua zutenak % 9,42 izan dira eta %3,66a euskarazko filmak (orotara %13,09a). Emanaldi kopuruei erreparatuz gero, gutxi gorabehera, 535 emanaldi izan dira, euskaraz azpigitulua zutenak %6,92a, euskarazkoak emanaldien % 3,36 (orotara %10,28a).

4. ONDORIOAK

4.1. FILMAK

Iaz aipatu bezala, aldaketa nabariena Euskal Zinemaren Egunean euskal zinemak sail propioa izatera pasatzea izan da. Euskal Herriko zuzendarien, eta Euskal Herriko ekoiztetxeek ekoiztiriko filmak Zinemira-Euskal Zinemaren Panorama atalean ikusi ahal izan zirelarik. BAGERA Elkartek aurrerapausotzat jotzen duen arren, euskarazko emanaldiak sail guztietara zabal daitezen eskatzen jarraitzen du.

Kuantitatiboki aurten izan duen aldaketa iazkoarekin alderatuta honakoa izan da: 6 film euskarazko bertsioan izan dira (berdin mantendu da), iaz 2 film euskarara bikoiztuta izatetik aurten ez da bikoiztutako filmik izan eta azpititulua izan dituzten filmak iaz baino 2 gutxiago izan dira (18 filmek izan dute euskarazko azpitituluak). Euskaraz bikoiztuak edo azpititulua izan dituzten filmak, aldezturik iragarriak izan dira. Orokorrean iazko datuak aurtengoekin konparatuta, euskarazko emanaldiak %11,8 izatetik aurten %10,28 izatera pasatu dira. Zinemaldian ehunka dira film emanaldiak eta horietatik gutxiegi dira euskara hutsean. Are gehiago, aurten euskarazko emanaldiak gutxitu egin dira eta bikoiztutako filmik ez da egon.

4.2. IDATZIZKO MATERIALA

Oro har, Zinemaldiaren antolakuntzak argitaratutako idatzizko material gehienetan informazio guztia bi eletan edo hiru eletan dago euskararen erabilera bermatuz. Hala ere, aipatu beharrean gaude, euskarazko azalpenak ez direla gaztelerazkoak bezain argiak, gazteleratik hitzez hitzeko itzulpena egiten delako, gure ustez.

4.2.1. Zinemaldiaren argitalpenak eta beste materiala

Egindako argitalpen, sarrera, bono... gehienak bi eletan (euskaraz eta gazteleraz) edo hiru eletan (euskaraz, ingelesez eta gazteleraz) izan dira. Hala ere, urtero errepikatzen diren hainbat hutsune daude sailen izenen erabileran, oharretan eta beste zenbait lekutan.

4.2.2. “Zinemaldia” egunkaria

Aldezturik zoriontzekoa da, lehen “Diario del Festival” zena, aurten “Zinemaldia” egunkaria izatea. Eta hau aurrerapauso handia izan da.

Aurreko urteko datuekin alderatuta ikusi ahal izan dugu egunkariaren atal orokorrean dagokienez, euskaraz gora egin duela artikuluen nagusietan.

Artikulu kopuruei dagokienez, iazko datuak kontuan hartuta, euskara hutsezko artikuluen kopurua igo egin da (%16,2tik %17,43ra) gaztelerazkoak jaitsi diren bitartean (%65,36tik %61,88ra). Euskarazkoetako aldaketak ondokoak izan dira: aldaketa nabarmenena Zinemira sailean %25etik %71,43ra pasatzea da; *Don Siegel* sailean, *Horizontes Latinos*, *The Industry Club* eta Zinema eskolen artikuluen nagusietan, aldiz, ez da euskararen arrastorik ikusi. *Don Siegel*, *Horizontes Latinos* eta *Zinema eskola* artikuluen nagusiak gazteleraz soilik izan dira. Ingelesezko artikuluetan ordea, artikuluen kopurua jaitsi egin da.

Oraindik ere, aipatu bezala, hainbat sailek ez dute euskarazko artikuluen nagusirik. Laburren kasuan, euskarazko artikulurik ez duten sail kopurua 7 dira, iaz bezala. Euskarazko artikulurik izan ez duten sailak honakoak dira: *Inaugurazioa*, *Don Siegel*, *Horizontes Latinos*, *Belodromoa*, *.Doc*, *The Industry Club*, *Epaimahaia* eta *Zinemira*. Larritzat jotzen dugu dauden 13 sailetatik 7k euskarazko artikuluen laburrik ez izatea. Are gehiago sail batzuetan ez artikuluen nagusietan ez laburretan ere, ez da euskararen arrastorik egon (*Don Siegel*, *.Doc* eta *The Industry Club* sailetan hain zuzen).

Orokorrean “Zinemaldia” egunkarian euskarak duen presentzia (%17,43) igo den arren, aurten ere, hirugarren mailan jarraitzen du, gaztelaren (%61,88) oso azpitik eta ingelesaren (%20,69) atzetik.

4.2.3. Web gunea

Aurten ere, lehenengo pantailan hizkuntza aukeratzeko aukera ematen zuen. Baina, zuzendu beharreko hutsuneak daude. Besteak beste; foroak, bideoak, zenbait audio... Hala ere, aurrerapausotzat jotzen dugu aurten prentsaurrekoak euskaraz entzun ahal izatea.

4.2.4. Prentsa oharra eta bestelakoak

Elebitasuna edo hirueletasuna izan dira nagusi prentsari zabaldutako informazioan.

4.2.5. Zinemaldiak argitaratu ez duen materiala

Idatzi hauek Zinemaldiak zuzenean argitaratzen ez dituela badakigun arren, Zinemaldiak honen erabilera egiten duen neurrian, eta antolatzaile bezala duen ardura kontuan izanda, ez ditugu aipatu gabe utzi nahi, hobetzeko asko dagoela iruditzen baitzaigu; euskararen presentzia oso eskasa da argitalpen horietan. Donostia turismoak argitaratutako “San Sebastian de Cine” eta “San Sebastian Tours” gaztelaraz eta ingelesez eskuratu dugu soilik, *La Casa de Cine* postala gaztelaraz, Qtuma “Queremos tener un millón de amigos” kaleratutako esku orria bi eletan, Donostia 2016rako lortutako materiala bi eletan... *The Industry Club*-ean eskuratutako esku orrietan ez da euskararen presentziarik egon (ingeleza eta gaztelara izan da nagusi). Zinema Ikasleen Nazioarteko IX. Topaketetan lortu ditugun esku orriak ingelesez eta gaztelaraz izan dira nagusi. *Irudimena* aldizkarian 2 artikulu bakarrik topatu ditugu euskaraz.

4.3. IRAGARKIAK

Egunkari ofizialean azaldutako iragarkiez gain, esku orriak, panelak, standak, e.a. ere hartu ditugu kontuan. Ikaragarria da Zinemaldian zehar ikus dezakegun iragarki mordo, baina tamalez, ia gehienak gaztelara hutsean daude.

Egunkari ofizialean, euskara hutsezko iragarkiak mantendu egin dira (2). Kuxak jarritako iragarkiak, iaz bezala, 3 egunetan euskara hutsean eta 6tan gaztelaraz izan dira. Iragarle kopuruari dagokionez zertxobait igo egin da, aurten; esan bezala bi iragarle izan dira euskara hutsezko iragarkia jarri dutenak. Bi eletan egin dituzten iragarleak 2 izan dira, iazkoekin alderatuta 2 gutxiago eta bakarra hiru eletan. Beraz, iazkoarekin alderatuta, oro har euskararen presentzia izan duten iragarkien kopurua kontuan hartuta iragarki kopurua jaitsi egin da (40tik 30ra) eta iragarle kopurua ikusita mantendu egin da.

Beste iragarki motei dagokienez, aipatu, egoera antzekoa dela, zinemaldiaren iragarki ofizialetan eta beste iragarleren batean izan ezik, zeinak hiru eletan egin dituzten, iragarle etxeak errepikatu egiten dira. Eta aurtengoan, egunkarian erabilitako era berean egin dute beste euskarrietan ere.

Azkenik, aipamen berezia egin nahi dugu, urtero bezala, administrazio publikoak jarritako iragarkiei buruz, hainbat hutsune topatu ditugulako besteak beste ongi etorri gidan Donostia Turismoak jarritako iragarkietan (“sabores de San Sebastian”) eta web gunean Eusko Jaurlaritzak jarritako gaztelara hutsezko iragarkian (“Euskadi saboréala”).

4.4. AHOZKO ERABILERA

Orokorrean, Nazioarteko Zinemaldian, gaztelera, euskara eta ingelesa erabiltzen da, baina dudarik gabe, gaztelera gailentzen da. Bestalde, idatzizko erabileran Zinemaldiak euskararen erabilera egokia bermatzeko egiten duen ahalegina ez da ahozkoan nabaritzen. Euskararen ahozko erabilera agurrak egitera mugatzen da askotan, eta bi hitzetan gelditu ohi da. Euskaraz ematen den informazioa ez da itzulpena izaten baizik eta erabiltzen den hizkuntza bakoitzak informazio propioa ematen du. Hau positibotzat jotzen dugu.

Aurten, ia bezala **ekitaldi berezietan** bideoak erabili dira, azpitituluak eta irakur zitezkeen gainontzekoak gaztelera hutsez zeuden. Euskarak merezi duen lekua izateko asko falta da eta ekitaldi hauetako aurkezle bat gutxienez euskalduna izan ohi denez, aurrerapauso garrantzitsuak emateko aukerak daudela uste dugu. Defizit hau hobetzeko dauden oztopoez jabetzen gara, baina oztopo horiek sortzen dituztenei euskararen presentzia areagotzeak daukan garrantzia erakutsi eta aurrerapausoak eman beharko liratekeela uste dugu.

Aurkezpen eta solasaldietan gaztelera da nagusi. Askotan, euskara modu sinboliko batean soilik agertzen da, agurtzeko momentuan. Aurkezpenak motzak izaten dira baina gaztelera ematen da informazio gehiena; euskara, bi hitzetan agurtzeko soilik erabili ohi da. Batzuetan filmeko parte hartzailearen batek hartzen du hitza (euskara edo gaztelera ez den hizkuntza batean), eta itzulpena egitekotan gaztelera egiten da soilik. Gainera, iruditzen zaigu euskara arlo honetan sustatzeko aukerak badaudela, adibidez, euskarazko emanaldietan (azpitituluak zituztenetan eta bikoiztutakoetan) elebitasuna mantenduz.

Solasaldietan ere gaztelera da nagusi eta beste hizkuntza bat erabiltzen denean, itzulpena beti gaztelera izaten da. Antolakuntzari, euskararen ahozko erabilera naturaltasun handiagoz erabiltzea proposatzen diogu, jendeak euskara erabil dezan bultzatuz; beraz, gero erantzuna ere euskaraz jaso dezaten bideak eskaini behar dira.

Prentsaurreko guztien metodologia antzekoa izaten da. Guztietan ere formak ondo gordetzen dira, aurkezpen gehienak bi hizkuntzetan izaten dira eta, lehenengo euskaraz, eta ondoren luze zabalago gaztelera. Ondoren, filmeko parte hartzaileek beren hizkuntzan hartzen dute hitza. Dena den, kazetari bakoitzak itzulpena nahi duen hizkuntzan entzuteko aukera dauka, bakoitzak zenbakitxo batekin, horien artean euskaraz entzuteko aukera dago. Itzulpen zerbitzuak egoki funtzionatu du. Bestalde, hobekuntza topatu dugu internet bidez jasotzen ziren prentsaurrekoetan, aurten euskaraz entzun zitezkeelako, eta hau oso positibotzat jotzen dugu.

5. PROPOSAMENAK

1. Sailen izenen arteko oreka mantentzea, euskarazko edo bi eletan dauden sailak programatuz eta ondoren izen elebidun horiek Zinemaldiarekin erlazionaturiko arlo guztietan erabiltzea.
2. Filmei dagokienez, euskarak leku zabalago baten beharra duenez, gutxienez, aurreko urteetako emanaldi kopurua handitzen joatea proposatzen dugu eta ahal den neurrian, euskarazko emanaldiak sail guztietan izan daitezela.
3. Hainbat filmen aurretik egin ohi diren aurkezpen laburretan, erabiltzen diren hizkuntzen artean oreka mantentzea eta euskara ez mugatzea soilik lehenengo ongi etorriko bi hitzetara. Ekitaldi berezietan ere euskararen erabilera areagotzea.
4. Solasaldietan, aurkezpenak eta azalpenak modu orekatuan euskaraz eta gaztelaniaz izatea. Modu natural batean euskara erabiltzea. Eta, galderaren bat euskaraz eginez gero, lehenengo erantzuna euskaraz jaso ahal izatea bermatzea.
5. “Zinemaldia” egunkarian ere, atal bakoitzean idazten dena orekatuagoa izatea, hau da, sail edota atal guztietan egotea euskararen presentzia. Bestalde, hainbat atal bi eletan jartzea edota leku arazoa dagoenean informazio berdina eskaintzeko hizkuntzak tartekatzea.
6. Zinemaldiaren antolakuntzaren esku ez dauden, baina, azken finean, zinemaldiaren barnean dauden beste hainbat ekitaldi eta eragileren idatzizko euskarrietan euskara normaltasunez erabiltzera bultzatzeko ahaleginak egitea.
7. Zinemaldiaren inguruan dauden iragarle anitzei Donostiako egoera linguistikoa azaltzea eta euskara normaltasun osoz erabiltzera animatzea.
8. “Galetan” eta sari banaketen emanaldietan euskararen erabilera, gutxienez, gaztelerarekin orekatua izatea.

Euskararen erabilerak, zinemaldian, oro har, ez du behar beste gora egiten. Besteak beste hori nabaritzen dugu euskararen presentzia filmetan, Zinemaldiaren atalik garrantzitsuenan, ez delako nabarmen igo azken urteetan zehar eta oraindik ere % 13 xume batean dagoelako. Hala ere aurten ere aurreko urtean aipatu bezala, *Zinemira*-ren saila positiboa dela ikusten dugun arren, ez dela nahikoa uste du BAGERA Elkartek. Gainera ahozko erabileran ez da aldaketarik nabaritzen azken urte hauetan, antolakuntzak ez erabiltzeaz gainera, jendeak erabil dezan ez delako sustatzen ari. Inaugurazio eta amaiera ekitaldietan ere, euskararen presentzia oso urria da eta bideoen azpitituluak gazteleraz bakarrik daude.

Idatzizko materialean, berriz, Zinemaldiko antolakuntzak egindako aurrerapausoa nabaritzekoa da, gaur egun bere esku dagoen materialean euskarak lekua duelako eta gehienetan hizkuntzen arteko oreka mantentzen delako. Adibide bezala, aurten, “Festival” egunkari ofiziala zena orain “Zinemaldia” egunkaria da, eta hori oso aldaketa positiboa dela uste du BAGERAK. Hala ere, bertan azaltzen diren artikuluetan lan HANDIA dago egiteko euskararen erabilera handitu dadin, euskarak, ingelesaren azpitik jarraitzen duelako eta gazteleraren erabileratik urrun.

Azkenik, eta zinemaldiko antolakuntzatik kanpo egon arren, Zinemaldiaren inguruan biltzen diren euskarri, iragarki eta beste motatako material idatzietan euskararen presentziarik ez dago ia. Horregatik Zinemaldiko antolakuntzak eta erakunde publikoek bere esku dagoena egin beharko luketela uste dugu, Zinemaldiaren parte diren beste eragile hauek ere euskara erabiltzera animatzeko.


ERANSKINAK

1. Eranskina


2010KO NAZIOARTEKO ZINEMALDIA

Aldizkariaren atalak/ hizkuntzak	EUSKARAZ	GAZTELERAZ	INGELESEZ	FRANTSESA	GUZTIRA
Argazkien oinak	18,25	72,26	9,49		100,00
Argazkiak	16,13	80,65	3,23		100,00
Programazio atalean sinopsiak	33,33	33,33	33,33		100,00
Agenda* + Programazioa		100,00			100,00
Staff-a		100,00			100,00
Artikulu nagusiak					
<i>Inaugurazioa</i>	25,00	50,00	25,00		100,00
<i>Don Siegel</i>	0,00	100,00			100,00
<i>Sail ofiziala</i>	37,50	62,50			100,00
<i>Zabaltegi</i>	19,05	80,95			100,00
<i>Horizontes Latinos</i>	0,00	100,00			100,00
<i>Belodromoa</i>	33,33	66,67			100,00
<i>.DOC</i>	15,38	84,62			100,00
<i>Donostia sariak</i>	33,33	66,67			100,00
<i>Berriak + sariak</i>	20,00	80,00			100,00
<i>The industry club</i>		50,00	50,00		100,00
<i>Epaimahaia</i>	25,00	75,00			100,00
<i>Zinema eskolak</i>		100,00			100,00
<i>Zinemira</i>	71,43	28,57			100,00
Guztira	20,31	75,00	4,69	0,00	100,00
Artikulu txikiak					
<i>Inaugurazioa</i>	0,00	66,67	33,33		100,00
<i>Don Siegel</i>					0,00
<i>Sail ofiziala</i>	13,04	17,39	69,57		100,00
<i>Zabaltegi</i>	30,77	36,54	32,69		100,00
<i>Horizontes Latinos</i>	0,00	14,29	85,71		100,00
<i>Belodromoa</i>	0,00	0,00	100,00		100,00
<i>.DOC</i>	0,00	90,91	9,09		100,00
<i>Donostia sariak</i>	16,67	33,33	50,00		100,00
<i>Berriak + sariak</i>	23,53	52,94	23,53		100,00
<i>The industry club</i>	0,00	30,77	69,23		100,00
<i>Epaimahaia</i>	0,00	50,00	50,00		100,00
<i>Zinema eskolak</i>	33,33	50,00	16,67		100,00
<i>Zinemira</i>	0,00	33,33	66,67		100,00
Guztira	14,69	40,68	44,63	0,00	100,00
Guztira	17,43	61,88	20,69	0,00	100,00

Artikulu nagusiak atal bakoitzean (2. eranskina 1)




Artikulu txikiak atal bakoitzean (2. eranskina 2)




Artikuluen konparaketa orokorra (2.eranskina 3)


Artikulu nagusien konparaketa




Artikulu txikien konparaketa



Artikuluen konparaketa guztira



ZINEMALDIA Egunkariko iragarkiak (3. eranskina. 1)**Iragarkien konparaketa (3. eranskina. 2)**